

IDATZIZKO PUBLIZITATEA

Kanpo Erabilera – Publizitatea / Argitalpenak

2.1.2a. Publizitatea. Idatzizkoa: prentsa, kartelak, folletoak

AZALPENA:

Euskarak balio erantsia eskaintzen du publiko zabal baten onespena lortzeko. Euskaraz ondo hitz egiten duen marka batek abantaila handia du balizko bezero askorekin identifikazio maila askoz handiagoa lortzeko.

Datuak ere badaude: euskarazko hedabideen tiradak, koberturak eta abar, iragarleei modu erakargarrian eta samurrean eskura jarri behar zaizkienak. Euskaraz publizitatea ez emateak, gainera, ez du oso irudi ona ematen, bi hizkuntza dituen lurralde batean gizarteak hautatutako bidearekin bat ez datorrelako.

Xehetasun guztiak zaindu behar dira, gaztelaniaz egiten den modu berebean, euskalduna den bat euskaraz ondo landuta ez dagoen publizitateak atzera botako baitu. Publizitate agentziek ez dute diru gehiago eskatuko euskarazkoa ere ondo zaintzearen truke. Euskarazko publizitate ona exijitu behar zaie agentziei.


Laburbilduz, euskarazko ideiak gaztelaniazkoa bezain biribila izan behar du.

OSORIK 2 HIZKUNTZATAN:


Arau orokor gisa, testua osorik emango da bi hizkuntzatan. Hau da, ez da egoki ikusten, hizkuntza batean testua osorik ematea eta bigarren hizkuntzan horren laburpena, batez ere, laburpena euskarazko testuari aplikatzen zaionean.

KOKAPENA:



Bi hizkuntzetan aurkezteko erarik egokiena, alde biak erabiltzea da, hau da, txostena hartzen dugunean hizkuntza bat agertzen da eta atzetik hartzen dugunean beste hizkuntza azaltzen da. Hau da, hizkuntza bateko testuaren amaieran, bestea ipini, baina alderantziz. Modu honetan, irakurleak, komunikazioari edo liburukiari buelta emanda, hizkuntzaz aldatuko du.



Salbuespen moduan, zenbait testu mota bi zutabetan eskainiko dira. Euskarazko testua ezkerrean kokatzen da.





DIPTIKOAK:



Barrurantz tolestu

TRIPTIKOAK:



Lehenengo zatia aurretik tolestu, gaztelaniazko biak aurrez aurre geratu arte. Euskarazko azala atzerantz tolestu eta kanpora begira geratuko da.